

KONTUZ NOREKIN OHERATZEN ZAREN GAUERO

**Ohe-zimitzen kontrako
prebentzio-kanpaina**



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**

Osasun Publikoaren eta Animalien Ongizatearen Zerbitzua
Servicio de Salud Pública y Bienestar Animal



Zer da ohe-zimitza?

Nolako itxura du?

Cimex Lectularius intsektu txiki bat da, gauekoa eta hematofagoa.

- Kobre edo kafe gorri ilun kolorekoa; gazteak direnean, anbar kolorekoak izaten dira.
- Gorputz zapala eta ez dute hegorik.
- 8 mm luze izatera iristen dira.
- Egunean 2 edo 3 arrautza jartzen dituzte, 500 jarri ditzakete bizi guztian.
- Dakigunez, ez dute gaixotasunik transmititzen.

Nola jakin zimitzak daudela?

Ez da erraza, baina badira zimitzak daudela konturatzeko zantzu batzuk.

- Zitadekin esnatzea.
- Puntu gorri ilunak ikustea maindireetan, alfonbretan, paretetan...
- Kaka-marka txikiak eta kutikulak ikustea lurrean, maindireetan, zirrikitueta...

Zein da zimitzen habitata?

Zirrikituak oro har, paretetako eta lurreko pitzadura eta arrailak, zokaloak, altzariak, entxufeak, koltxoiaren josturak, eta batez ere ohea...



Nola prebenitu?

Nola sartzen da etxean?

3 bidetatik sartzen dira:

- Gauza infestatuak kaletik hartzean (altzariak).
- Maletan, bidaiatik bueltan.
- Eta etxe batetik bestera pasatzen direlako.

Nola saihestu?

- Ez hartu altzaririk kaletik.
- Neurriak hartu bidaietan:

Hotelera iristean:

- Utzi maleta komunean eta begiratu koltxoian eta oheburuan. Dena ondo badago, ipini ekipajea maletategian eta urrundu paretatik.

Hoteletik alde egiterakoan:

- Ikuskatu ohea. Arrastorik badago, sartu maleta poltsa batean eta itxi poltsa. Etxera iritsitakoan, garbitu eta lehortu arropa 65°tik gorako tenperaturan, edo izoztu -15°tik behera astebez.



Eta dagoeneko etxean badira?

- Ez erabili intsektizidarik.
- Joan profesional batengana.
- Garbitu eta lehortu arropa 65°tik gorako tenperaturan, edo izoztu -15°tik behera astebez.
- Aztertu altzariak. Infestatuta badaude, kalera atera aurretik jar zaitez gurekin harremanetan.
- Garbitu etxeko arropa (gortinak, alfonbrak...) lurrin beroarekin zimitzak eta arrautzak akabatzeko.
- Garbitu argi-etengailuak, altzariak, moldurak...
- Garbitu etxea eta txukun eduki, desordenarik gabe.

Edozein zalantza argitzeko, edo izurri baten berri emateko, deitu **943 48 38 78** zenbakira.

Prebentzio-neurri horiek garesti eta gogaikarri samarrak izan badaitezke ere, ez dute konparaziorik izurria ezabatzea kostatzen denarekin.

